

**2007KO URRIAREN 16AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:**Hamaseia

**HILABETEA:** Urria

**URTEA:** Bi mila eta zazpi

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatziak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** Jon Kortaberria Lasa

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Gai-zerrendarekin hasi baino lehen Alkateak adierazi du hemendik aurrera, Udalbatza Osoa goizeko bederatzietan egingo dela, inguruko herrietan ezartzen ari den ohiturarekin bat egiteko.

Fernando Boada, PSE-EE/PSOeko ordezkariak esan du bere taldeak komentatuko dela eta beraien iritzia emango dutela.

**1.- AURREKO AKTA.** 2007ko irailaren 18ko aktaren berri eman ondoren, Fernando Boada jaunak ondorengo aldaketa egiteko eskatu du:

Hirigintza Asistentzia kontratatzeko gai-zerrendaren bigarren puntuan adierazi behar da, bera abstenitu egin zela, pleguan jasotzen den aipamen honekin ados ez dagoelako: “Esleipendunak ez du bere lanbidea kontratua egiten duen udalerraren jurisdikzioan burutu behar. Hala ere, eskumena izango du dokumentu hauen idazketa kontratatzeko prozeduretan parte hartzeko: plangintza orokorra eta garapena, baita Administrazioak edo erakunde publikoek edo gehieneko kapitala publikoa duten Sozietateek sustaturiko hiri eraikuntzen proiektuak.”

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

**2.- OBRAK KONTRATATZEA.** Aprobación de Proyecto y convocatoria pública para la estabilización de un muro en el Liceo Alkartasuna.

Ezagutzera eman da Beasaingo Alkartasuna Lizeoan horma bat egonkortzeko obrak egin beharra daudela eta gainera premiazkoa dela obra horiek exekutatzeko, 2007ko urriaren 10ean Udal Aparejadoreak egindako txostenaren arabera. Txosten horretan adierazten du, gaur egun horma hori oso egoera txarrean aurkitzen dela eta ikastetxe baten inguruan egoteak eragin duela kirol instalazioak ixtea erortzeko arriskua dagoelako.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** 237.039,75 €ko aurrekontua duen Beasaingo Alkartasuna Lizeoan horma bat egonkortzeko obra-proiektua onartzea

**Bigarren.-** Beasaingo Alkartasuna Lizeoan horma bat egonkortzeko obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdia egitea, baina bakarrik aipatutako proiektuaren 02 eta 03 kapituluetan aurreikusita dagokionean. Aldi berean, lehiaketa onartutako agiri baldintzren arabera arautuko da.

1.- Xedea: Beasaingo Alkartasuna Lizeoan horma bat egonkortzeko obrak kontratatzea.

2.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta premiazko prozedura

3.- Licitazio prezioa: 200.469,48 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: K taldea, 2. Azpitaldea, b maila.

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

7.- Egikaritze epea: 2 hilabete.

8.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek Baldintza Administrazioen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

**3.- KALE NAGUSIA, 32KO BIZILAGUNEK AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOA.** Resolución de las alegaciones formuladas y de la reclamación.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da.

“AURREKARIAK

1.- 2006ko ekainaren 5eko datarekin, Kale Nagusia, 32ko bizilagun eta jabeek Beasaingo Udaletxean idatzi bat aurkeztu zuten, Beasaingo Kale Nagusiko 32 zenbakia duen eraikina altxatzeko eta igogailua jartzeko emandako hirigintza lizentzia epaileak bertan behera uzteagatik sorrarazitako kalteak eta galerak ordaintzea eskatuz.

2.- Espedientearen izapidetzeari hasiera emanda gero eta erreklamazioa aurkeztu zuenei hainbat dokumentazioa aurkezteko eskatu ondoren, 2007ko martxoaren 5ean, Ebazpen proposamena eman zen, zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik ondorioztatutako beren ondasun eta eskubideen jasandako kalteengatik, kalte-ordaina jasotzeko duten eskubidea aitortuz.

3.- Ebazpen-proposamena jakinarazi ondoren, interesatuek hamabost eguneko epean hainbat alegazio aurkeztu zituzten. Gainera 2007ko martxoaren 29ko datarekin, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eskatzen da aurkeztutako erreklamazioei buruz eta honek 2007ko maiatzaren 11n 61/2007 zenbakia duen txostena eman zuen, Beasaingo Udalak emandako Ebazpen Proposamena berretsiz.

4.- Hori guztia dela eta, 2007ko irailaren 11ko datarekin, ondorengo txosten juridikoa ematen da:

“Hasiera batean, kalte ordainen kasuan kontuan izan daitekeen aldia eta bertan behera geratzearen ondorioz sortutako kalte materialak aztertuko ditugu lehenik eta behin, egindako alegazio guztietan agertzen den aldea izaki.

Kontuan izan daitekeen aldiari dagokionez, erreklamazioaileek uste dute ahazten ari dela Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako 1. Epaitegiaren 2005eko irailaren 22ko Epaia eta

gero bost hilabete inguru igaro zirela obra lizentzia berria eman zen arte, eta denbora horretan guztian zehar lanak geldirik egon zirela. Are gehiago esanda, erreklamatzailenetako batek uste du aldia motza litzatekeela ordurako eraiki zena eraitsi egin behar izan zela kontuan hartzen bada.

Gauzak horrela, azpimarratzekoa da sinatzaileek zenbatetsitako 20 hilabeteko aldiari erreklamatzailerek alegatutako bost hilabeteak erantsiko bagenizkio, ez ginatkeela 30 hilabeteko aldira iritsiko. Ondorioz, ez da ulertzen haien ekitearen zergatia.

Hala eta guztiz ere, uste dugu alegatzen diren bost hilabeteak zenbatestea ere ez litzatekeela egokia izango. Aurreko txostenetan egoki adierazi izan zen bezala, Beasaingo Udalaren erantzukizuna, ondare erantzukizuna onesteko arrazoi-ondorio erlazioa, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren 2005eko irailaren 22ko Epaiarekin amaitzen da. Data horretatik aurrera, "OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L." enpresa da auzotarrei eragindako kalteen arduraduna. Adierazitako enpresari dagokio lizentzia eskatzea, beraz, horretan izandako edozein atzerapen haren erantzukizunpekoa bihurtzen da.

Bigarren kontu orokorrari dagokionez, eraikineko etxebizitzetan eta lokaletan eragindako kalteekin uztarturikoa, aurreko txostenetan jada adierazi zenari heltzen diogu. Izan ere, uste dugu jarritako alegazioek ez dutela datu berririk ekartzen eta, beraz, ez dutela inguruabarren gaineko iritzia aldarazten.

Adierazi den guztia argituta, aztertu eta erantzunda geratzen dira erabat Aloña Etxezabal Muñoa andreak, Coro Santos Serrano andreak, Iñaki Yabar Gorrotxategi jaunak, Alberto Lopez Juarez jaunak, Maria Jesús Mendia Mendia andreak eta M. Aranzazu Olaizola Barros andreak jarritako alegazioak.

Maria Jesus Mendia Mendia andreak alegazioen idazkian planteatutako gainerako gaiari dagokienez, hurrengo oharrak nabarmentzea komeni da:

- Oraindik ez da diru-sarreraren galera ziurtatu, beraz, ezin onets daiteke eskaera.
- Ur, elektrizitate, aseguru, eta abarren gutxienekoak: harrigarria da erreklamazioen idazkian orain erreklamatzaren diren kontzeptuei dagozkien kalte ordainak eskatu ez izana. Hala eta guztiz ere, eta gastu horien funtsean sartu gabe, azpimarratzekoa da horiek ziurtatzeko dokumenturik ez aurkeztea. Ondorioz, ezin onets daiteke eskaera.
- Udal zergak: ezin onets daiteke eskaera, ez direlako administrazio jardunari egotz dakizkion gastuak."

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeak ondorengo erabaki du:

**Lehenik.** Aloña Etxezabal Muñoa, Coro Santos Serrano, M<sup>a</sup> Jesus Mendia Mendia, Iñaki Yabar Gorrotxategi eta Alberto Juarez jaun-andreak, zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik ondorioztatutako beren ondasun eta eskubideetan jasandako kalteengatik, kalte-ordaina jasotzeko duten eskubidea aitortzea, jarraian aipatutako kopuru eta kontzeptuengatik:

- Aloña Etxezabal Muñoa andrea: 12.000,00 €, bizitoki berria behar izatearen ondorioz ordaindutako alokairuagatik.
- Coro Santos Serrano andrea: 6.611,20 €, lanak gelditzearen ondotik jasotzeari utzitako alokairuagatik.
- Maria Jesús Mendia Mendia andrea: 21.813,80 €, jasotzeari utzitako lokalaren alokairuagatik.
- Iñaki Yabar Gorrotxategi jauna: 12.000,00 €, bizitoki berria behar izatearen ondorioz ordaindutako alokairuagatik.
- Alberto Lopez Juarez: 12.000,00 €, bizitoki berria behar izatearen ondorioz ordaindutako alokairuagatik.

**Bigarren.** Ebazpen honen berri erreklamazioa aurkeztu zuenei ematea beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekursoen aipamena eginez.”

#### **4.- HAINBAT GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

- Batzorde informatiboak eta lehendariak izendatzea

Alkateak ezagutzera eman du hurrengo Plenoan proposamena aurkeztuko dela.

- Sociedad Intxaurpe.

Alkateak ezagutzera eman du, obrak kontratatzeko kreditu aldaketa egin dela eta hurrengo pausoa, obrak lehiaketa irekiaren bidez kontratatzea izango dela.

- Dolarea zaharberritzeko obrei buruzko hobaria.

Ezagutzera eman da, esleipendunak Dolarea zaharberritzeko obrei buruzko hobaria eskatu duela eta gai hau hurrengo Plenoan erabakitzeko proposamena egingo dela.

- Zabor-tasa

Gaur bertan Hazienda batzordeak proposamena egin dio Udalbatza Osoari, gaur egungo tarifei %8,6ko igoera aplikatzeko.

- N-1 sarbidea

IKAUREk proiektua egin du eta inizatiba hori gauzatu ahal izateko ADIFekin terreno horien alokairu kontratua egingo da. Gai honetaz ere Foru Aldundiarekin hitza egin da.

- Kirol Teknikaria

Alkateak gogoratu du bere garaian, gobernu batzordea osatzen duten kideei kirol teknikarientzat proposatzen ziren funtzioen berri eman zitzaiela aztertzeko eta norbaitek zerbait adierazi nahi badu, adierazteko eskatu die, kirol teknikaria kontratatzekeo prozesua martxan jarri nahi delako.

- Auzolaneko kontratazioa

Jadanik kontratazio honen prozedurari hasiera eman zaio. Kontratatzeko enpresak Udalak esandako langileei formazioa ematen die eta hauen jarraipena egiten du. Udalak langile horiei ordaintzen die, Eusko Jaurlaritzak horretarako emandako dirutik.

- 31 Areako Urbanizazio Proiektua

Ezagutzera eman da lehengo astean 31 Areako Urbanizazio Proiektua onartzea proposatu zela eta orain Alkateri dagokiola hasierako onespena ematea.

- ARAU SUBSIDIARIOAK

Ezagutzera eman da, gaurko Diputatu Kontseiluan onartzen dela Arau Subsidiarioetako berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Testu Bateratua eta berehala izango dugula erabakiaren jakinarazpena.

- INDAR

Ezagutzera eman da INDAReko enpresaren asmoa dela lehen pabiloiak egitea aurreikusita zegoen tokian, orain aparkalekuak egin nahi dituztela eta horrek Egitasmo Partzialaren eta Errepartzelazio Proiektuaren aldaketa dakarrela.

- GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA.

Alkateak ondorengo azaldu du: "Goierriko Herrien Ekintzan eskualdeko mailan berrikuntzarako azterketa bat egin da. Ikusi da Goierriko eskualdeak industria asko daukela, baina baita ere akatsak. CAF ingurua Ordiziako Udalak urbanistikoki garatu egin nahi du. Sustatzaile batek terrenoak erosi ditu eta familiabakarreko etxebizitzak egiteaz gain, berrikuntzarako enpresak egin nahi ditu.

Aldi berean ikusi da beharrezkoa dela unibertsitatea handitzea, baina baita “mantal zuriko” deritzan enpresak ere egin nahi dira. Kooperatibak unibertsitatea handitzen inbertitu behar dute dirua, baina teknologia zerbitzuak jartzeko ere diru dezente dago. Honelako inizatibak, toki desberdinetan daude, hala nola, Arrasate, Oñati, Zarautz.

- Udazken kulturala

Ezagutzera eman da udazken kulturala aste buru honetan hasten dela eta aurten odolki egunari garrantzi handiagoa eman nahi zaiola eta lehen ekitaldiak bakarrik goizean baziren ere aurten arratsaldera arte luzatuko direla.

- Ingurune irekiko programa

Gizarte ongizate batzordean prestatzen ari dira, kale hezitzaileak eta eskuartze familiarra kontratatzeke baldintza pleguak.

- Agenda eskolarra

Begoña Lasa, EBko ordezkariak adierazi du, 2007ko azaroaren 6an audientzia martxan jartzen dela eta 2007ko azaroaren 11n Arriaran eta Legorretako ur-araztegiara bisita egingo dela. Bisita hori bizilagun guztiei zuzenduta dago.

Tokiko agendaren kasuan, ikastetxeek gai bat aukeratzen dute eta ikastetxeetako ordezkariekin gai hori lantzen da.

Eskualde mailan, IHOBEn laguntzarekin funtzionatzen da. Gaur egun mugikortasuna eta jarduera-lizentzia lantzen ari da.

- Zinegotziei asistentziak ordaintzea

2007ko uztailaren 19an Udalbatzak egindako bileran udal korporatiboen dedikazioagatik ondorengo diru kopuruen ordainketa ezartzea erabaki zuen:

Zinegotzia: 384,34 €/hileko.

Zinegotzi Ordezkari duena eta udal erakundeetako lehendakaria (Musika eskola, Euskaltegia eta Kirol Patronatua): 480,44 €/hileko.

Zinegotzi Batzorde-Lehendakaria: : 720,64 €/hileko

Gobernu Batzordeko kidea: 720,64 €/hileko

Dedikazio Partziala: dedikazioaren proportzioan.

EAJ, PSE-EE/PSOE eta EBko taldeetako partaide eta Gobernu Batzordeko kide diren zinegotziek, PPkoak ezik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75 artikulua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko PFEZaren 10/2006 Foru Arauaren 18.b) artikulua eta Udaleko Kontu-hartzaileak igorritako txostena ezagutu arren eta guztietan xedatutakoaren aurka, ondorengo erabaki dute: 2007. ekitaldiari dagozkion asistentziak era pertsonal eta banakakoan ordainduak ez izatea baizik eta aipatutako udal taldeen izenean eta beraien alde abonatuak izatea, hauen finantzaketara zuzendutako kopuruak ordaintzeko gauzatutako kontu korrontean.

## **5.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaikak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.